



2002/08/06ko prentsa-oharra

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA**2002ko bigarren hiruhilekoa**

EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO SEKTOREKO SALMENTEK % 1,0EKO HAZKUNDE NOMINALA IZAN ZUTEN 2002KO BIGARREN HIRUHILEKOAN

Espezializatu gabeko txikizkako merkataritzak (% 3,6) espezializatuak edo tradiziozkoak (% -0,1) baino dinamismo handiagoa izan du.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta gehiago izan zuen 2002ko bigarren hiruhilekoan (% 1,0ko gehikuntza) kopuru nominaletan, Eustatek emandako datuen arabera. Hala ere, kopuru errealetan, salmentak % 1,5 jaitsi dira, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2000	II	0,6	-0,5	3,2
	III	0,7	-0,3	2,8
	IV	1,4	3,3	-2,8
2001	I	2,6	3,4	0,7
	II	1,8	2,1	1,1
	III	-0,5	0,2	-1,8
2002	IV	-2,0	-2,9	0,0
	I	-1,0	-1,6	0,4
	II	-1,5	-1,8	-1,0

Fuente: EUSTAT

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatuak) % 3,6ko hazkunde nominala izan du bigarren hiruhilekoan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza % -1,0koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatuak) salmenta nominalak % -0,1 jaitsi dira 2002ko bigarren hiruhilekoan, 2001eko bigarren hiruhilekoaren aldean. Jaitsiera nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, % -1,8 bihurtzen da, kopuru errealetan.

Txikizkako merkataritzaren sektoreko landunek % 0,1eko hazkundera izan dute 2002ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean. Txikizkako merkataritza ez-espezializatuan

enpleguaren hazkundera izan da (% 0,9), eta sektore espezializatu edo tradiziozkoan jaitsi egin da (% -0,1).

Lurraldeka banatuz gero, Araban izan da txikizkako merkataritzako salmenta nominalen hazkunderik handiena; % 2,7ko urte arteko hazkundera izan da, txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren hazkunderengatik (% 4,0). Atzetik Bizkaia du, indize orokorreko aldakuntza positiboarekin (% 1,8). Gipuzkoan, aldiz, salmentek behera egin dute (%-0,8), merkataritza espezializatuak izandako jaitsiera gogorraren (% -3,6) ondorioz.

Kopuru errealetan, salmentek behera egin dute lurralde guztietan: Gipuzkoan % -3,2, Bizkaian % -0,8 eta Araban % -0,1.

2002ko lehenengo sei hilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunen aldetik, gehikuntza metatua izan da hiru lurraldeetan, aurreko urteko sei hileko beraren aldean. Hona hemen zenbatekoak: Araban % 5,8 eta Gipuzkoan % 2,5; aldiz, Bizkaian gehikuntza txikia izan da, % 0,2koa.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.:+34-945 017 500 Faxa:+34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.:+34-945 017 505 Faxa:+34-945 017 501 E-maila: Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--